

## **BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA, CASARES-TOMASENE KULTUR ETXEAN IRRATI ZERBITZUA, ETA LANTEGIAK DINAMIZATZEKO ETA IRRATI ETA KOMUNIKAZIO IKASTAROAK EMATEKO ZEREGINAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA**

### **1. XEDEA**

Lizitazio honen xedea da honako zerbitzu hau egiteko enpresa bat hautatzea: (a) Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea; (b) emanaldi zerrendetarako laguntza teknikoa ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta; eta (c) irrati eta komunikazio ikastaroen programak diseinatzea, eta horiek Casares-Tomasene kultur etxean ematea. Zerbitzu hori Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoarentzat egingo da (aurrerantzean, DONOSTIA KULTURA), agiri honetan eta klausula ekonomiko administratiboen agirian jasotakoaren arabera.

Horretarako, DONOSTIA KULTURAK enpresa kontratistaren esku jarriko ditu Casares Irratiaren instalazioak (Donostiako Casares-Tomasene kultur etxean kokatutakoak), kontratuaren xede diren prestazioak gauzatu ditzan.

Kontratuaren xedek bereizitako jarduera hauek biltzen ditu:

#### **a) Casares-Tomasene kultur etxearen Irratia (aurrerantzean, Casares Irratia), eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea.**

Kontratuaren xedek Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea biltzen du.

Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzeko, era berean, DONOSTIA KULTURAREkin batera funtzionamendu proiektu bat diseinatu eta abiaraztea hartuko du. Proiektua enpresa lizitatzailerik proposatuko dute euren proposamen teknikoan, klausula ekonomiko administratiboen agiriaren 13. klausulan ezarritakoaren arabera.

Kontratuaren esleipendun suertatzen den enpresak proposatutako funtzionamendu proiektua DONOSTIA KULTURAREkin ados jarrita garatu eta egokituko da kontratua gauzatzen den bitartean.

Horretarako, agiri honen eranskin gisa doan dokumentuan, erreferentzia moduan eta lotespenik gabe, proiektuaren ildo nagusiak biltzen dira, eta enpresa esleipendunak dokumentu hori erabili ahal izango du bere proposamenak egiteko.

Horri dagokionez, adierazi behar da Irrati Lantegia irrati hedabidea ezagutzen dutenei, eta esatari gisa prestatzeko eta, oro har, komunikazio gaitasuna hobetzeko interesa dutenei zuzenduta dagoela. Irrati Lantegiak pertsona horiei aukera ematen die euren irrati programa egin eta emateko. Enpresa kontratista arduratuko da Irrati Lantegi horretan parte hartzen dutenak koordinatzeaz.

Horretarako, DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio beharrezko kudeaketak egitea Lantegiaren eta horren kostuaren berri jendaurrean emateko; matrikulazio kudeaketak egitea eta matrikulatutako pertsonen prezioa kobratzea; eta Lantegian pertsonak matrikulatzearekin lotutako beste edozein izapide egitea.

**b) Emanaldi zerrendetarako laguntza teknikoa ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta.**

Enpresa esleipenduna ardurako da, halaber, Casares Irratiaren tresneria teknikoa kontserbatu, mantendu eta maneiatzearaz; haren instalazioak eta ekipamenduak kontrolatzeko zereginak egiteaz; emanaldi zerrendak kudeatzeaz; eta emanaldiaren jarraipena ziurtatzeaz.

**c) Irrati eta komunikazio ikastaroen programak diseinatzea, eta horiek ematea.**

Kontratuaren xedea da, era berean, irratizko hedapenaren, komunikazioaren, ahotsaren eta soinuaren esparruan prestakuntza eskaintza bat diseinatu eta abiaraztea, oro har, Casares-Tomasene kultur etxearentzat, eta esparru horretan ikastaroak ematea.

Ikastaroen programak diseinatzeko zerbitzuaren barruan dago bai dagokion ikasturte zehatzean eman beharreko ikastaroen diseinu orokorra eta egutegia lantzea, bai ikastaro horiei dagozkien programen diseinu zehatza egitea.

Hala eta guztiz ere, kontratuaren indarraldiaren lehen urtean ez da egingo eman beharreko ikastaroen diseinu orokorra eta egutegia lantzeko zerbitzua. Zerbitzu hori DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio. Lehen urte horretan, ordea, DONOSTIA KULTURAK zehaztutako ikastaroen programa zehatzak diseinatu beharko dira.

DONOSTIA KULTURAK, ikastaro bakoitza hasi aurretik, dagokion ikastaroan matrikulatutako pertsonen zerrenda emango dio enpresa kontratistari. Horretarako, DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio beharrezko kudeaketak egitea ikastaroen eta horien kostuaren berri jendaurrean emateko; matrikulazio kudeaketak egitea eta matrikulatutako pertsonen prezioa kobratzea; eta ikastaroetan pertsonak matrikulatzearekin lotutako beste edozein izapide egitea.

DONOSTIA KULTURAK beretzat gordetzen du mintegiak, lantegiak eta bestelako ikastaroak antolatzeko ahalmena; horien edukia eta ezaugarriak direla eta (DONOSTIA KULTURAK bakarrik zehaztuko du espezialitatea), profesional edo artista jakin batek horiek eman behar dituela irizten badio. Ikastaro horiek egilearekin edota esleipendun suertatzen den enpresa berarekin edo beste batekin kontratatu ahal izango dira, dagokion prozeduraren bidez.

Ikastaroak eta lantegiak DONOSTIA KULTURAREN mendeko sozietateen instalazioetan egiteko aukera aintzat hartu da; hau da, Victoria Eugenia Antzokia, SAREN eta San Telmo Museoa, SAREN instalazioetan.

Kontratuaren xedek ez du barne hartuko: (i) Casares Irratiaren ekipamendu eta instalazioetan konponketak egitea, hirugarren profesional espezializatuen laguntza behar bada; (ii) kontratua gauzatzeko enpresa kontratistak erabiltzen duen material diskografikoa, magnetikoa, optikoa edo bibliografikoa eskuratzea, ez eta irradi materiala ere; ez eta (iii) ikastaroak emateko erabili beharreko materialak eskuratzea ere. DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio, enpresa kontratistak eskatuta edo hark erabakita, adierazitako zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea; betiere, beharrezkotzat jotzen badu eta bidezko prozedurak beteta. Zerbitzu eta hornidura horien kostua DONOSTIA KULTURARI zuzenean fakturatuko zaio eta berak ordainduko du.

Zerbitzu horiek egiteko baldintzak ondorengo 2. klausulan jasotzen dira.

Enpresa lizitatuzaileek aurkezten dituzten eskaintzetan, jardueren hiru atal horiek jaso beharko dituzte.

## 2. ZERBITZUAREN BALDINTZAK

Enpresa esleipendunak jarduera bakoitzari dagokionez bete beharreko zereginak, betiere DONOSTIA KULTURAK ezarritako jarraibideen arabera, honako hauek dira:

### a) Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea.

#### a.1) Kudeatu eta dinamizatzea.

Enpresa kontratistak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

- DONOSTIA KULTURArekin batera, enpresa kontratistak proposatutako funtzionamendu proiektua diseinatu eta abiaraztea. Proiektu proposamen hori DONOSTIA KULTURArekin ados jarrita garatu eta egokitu beharko da kontratua gauzatzean.

Proiektu horrek honako helburuok izan behar ditu:

- ✓ Egungo mugimendu kulturalako artistak eta agenteak ezagutzera ematea, eta errealitate hori Casares Irratiaren webaren bitartez islatzea (aurrerago ezartzen denez, web hori enpresa kontratistak sortu eta mantendu beharko du).
- ✓ Internet bidez sortzen den material kulturala artxibatu, kudeatu eta hedatzea.
- ✓ Ikuspegi teknikitik eta estetikitik ahotsa lantzeko laborategi bat sortzea.
- ✓ Irrati Lantegiaren erabiltzaileak barrutik dinamizatzea. Topaketak eta eztabaidak antolatuko dira, Lantegiaren barruko informazio fluxuak eta berezitasunak nabarmentzeko.
- Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea.
- Irrati Lantegia antolatzea, bertan parte hartzen dutenak koordinatzea eta horiek haren instalazioak erabiltzea.
- Irrati Lantegiaren berri ematea harekiko interesa erakusten duen edonori.

#### a.2) Programazioa.

Enpresa kontratistak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

- Casares Irratiarentzako programazio proposamenak egitea, erantsitako dokumentuan (**Eranskina**) ezarritako ildoan eta enpresa esleipendunak proposatutako proiektuaren arabera. Nolanahi ere, DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio programazioa behin betiko onartzea.

- Irrati Lantegian parte hartzen dutenek proposatzen dituzten irradi programen proiektuak jaso, aztertu eta baloratzea; edonola ere, proiektu jakin bat hautatzearen inguruko azken erabakia DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio. Baleude, proiektu bakoitzaren ekoizpen kostuak zehaztu beharko dira.
- Irrati Lantegian parte hartzen dutenek gauzatutako proiektuak gainbegiratzea.
- Emanaldi ordutegia honako hau izango da: 10:00etatik 22:00etara, astelehenetik igandera, urteko hilabete guztietan, abuztuan izan ezik.
- Irrati Lantegian praktikak egiten dituzten ikasle bekadunak prestatu eta koordinatzea, DONOSTIA KULTURAREN eta prestakuntza zentroen artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenen ondorioz.

Ildo horretatik, DONOSTIA KULTURAREN kontura izango dira ikasle bekadun horiek kontratatzearekin lotutako kostu guztiak.

- Programazioa DONOSTIA KULTURAREKIN ados jarrita ematea.
- Programazioaren hedapena antolatu eta koordinatzea.
- Irrati programetan parte hartzen duten gonbidatuekin harremanetan jartzea eta zuzenean harrera egitea.
- Programetan, euskararen erabilerari arreta berezia jartzea.
- Proiektua hedatzeko beharrezko zereginak egiteaz arduratzea; hots:
  - ✓ Emanaldirako eta hedapenerako webgune erakargarria eta erabilgarria sortu eta mantentzea.
  - ✓ Sustapen kanpaina baten diseinua aurkeztea. Agenteekin biltzea, proiektuaren berri emateko.
  - ✓ Emanaldi bereziko aste bat sortzea, proiektua ezagutzera emateko.
  - ✓ DONOSTIA KULTURARI proiektu berria jendaurrean aurkezteko jardunaldiak antolatzeko proposamen bat egitea.
- Esparru horretan aplikatu behar den indarreko araudia betiere errespetatzea.

## **b) Emanaldi zerrendetarako laguntza teknikoa ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta.**

Enpresa kontratistak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

- Programak automatizatzea eta horien jarraipena bermatzea, DONOSTIA KULTURAREN eta enpresa esleipendunaren artean adostutako programazio irizpideen arabera. Hala eta guztiz ere, bien artean desadostasunik balego, DONOSTIA KULTURAK proposatutako programazio irizpidea izango da aplikatzekoa.

- Casares Irratiaren ekipamendua eta instalazioak funtzionamendu egoera aproposan mantentzea.

Hala eta guztiz ere, DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio, enpresa kontratistak eskatuta edo hark erabakita, Casares Irratiaren ekipamendua eta instalazioak konpontzeko zerbitzuak kontratatzea, hirugarren profesional espezializatuen laguntza eskatzen badu horrek; betiere, beharrezkotzat jotzen badu eta bidezko prozedurak beteta. Zerbitzu horien kostua DONOSTIA KULTURARI zuzenean fakturatuko zaio eta berak ordainduko du.

- Irrati Lantegian sortzen den irrati materiala artxibatu eta gordetzea.
- Kontratua gauzatzeari atxikitzea Casares Irratiaren funtzionamendurako beharrezko informatika materiala (hardwarea eta softwarea).

Casares Irratiaren funtzionamendurako beharrezkoa den informatika material hori (hardwarea eta softwarea) identifikatzearen, interesa duten enpresa lizitzaileek bisitaldi bat egin ahal izango dute Casares Irratiaren instalazioetara, posta elektronikoko helbide honetan aurretiaz eskaera eginez gero: Lourdes\_Gutierrez@donostia.org. Eskaera horretan, enpresa lizitzailearen harremanetarako datuak adierazi beharko dira.

Hala eta guztiz ere, DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio, enpresa kontratistak eskatuta edo hark erabakita, kontratua gauzatzeko enpresa kontratistak erabiltzen duen material diskografikoa, magnetikoa, optikoa edo bibliografikoa hornitzea, bai eta irrati materiala ere; betiere, beharrezkotzat jotzen badu eta bidezko prozedurak beteta. Hornidura horien kostua DONOSTIA KULTURARI zuzenean fakturatuko zaio eta berak ordainduko du.

## **c) Irrati eta komunikazio ikastaroen programak diseinatzea, eta horiek ematea.**

DONOSTIA KULTURAK erabakiko du gutxienez zenbat ikasle behar diren ikastaro bakoitza egiteko.

DONOSTIA KULTURAK erabakiko ditu ikastaroak hasi eta amaitzeko datak, eta dagozkion oporraldiak.

Beharrezkoa izango balitz ikasleen aurretiazko maila ebaluatzea irrati ikastaroetako matrikulazio prozesuan (aurretiazko izen emateak), enpresa esleipendunak horretan lagunduko du, bai eta, oro har, matrikulazio prozesu osoan ere.

Ikastaroen programak diseinatzeko zerbitzua egiteari dagokionez, enpresa esleipendunak, urte bakoitzeko apirila amaitu baino lehenago, dagokion ikasturtean deitu beharreko ikastaroen programa orokorrerako proposamena aurkeztu beharko du. DONOSTIA KULTURAK proposamen hori aztertu ondoren, eta horretan bidezkotzat hartzen dituen aldaketak sartuta, hura baimenduko du. Kasu horretan, enpresa esleipendunak, baimen horretatik hilabeteko epean, baimendutako proposamenean jasotako ikastaroen programa zehatzak aurkeztuko ditu. Proposamen hori, halaber, DONOSTIA KULTURAK espresuki baimendu beharko du, bidezkotzat jotzen dituen aldaketak sartu ondoren.

Hori guztia ez da aplikatzekoa izango kontratuaren indarraldiaren lehenengo urtean, aurreko klausulako c) letrako hirugarren paragrafoan dagoeneko jasotakoaren arabera. Izan ere, urte horretan DONOSTIA KULTURAK diseinatuko ditu programak.

Era berean, ikastaroen programa zehatzetarako proposamenean, horiek emateko erabili beharreko materialak jasoko dira. DONOSTIA KULTURARI egokituko zaio, enpresa kontratistak eskatuta edo hark erabakita, adierazitako material hornidurak kontratatzea; betiere, beharrezkotzat jotzen badu eta bidezko prozedurak beteta. Hornidura horien kostua DONOSTIA KULTURARI zuzenean fakturatuko zaio eta berak ordainduko du.

DONOSTIA KULTURAK enpresa esleipendunaren eskura jarriko du beharrezko informatika materiala (hardwarea eta softwarea) adierazitako irrati eta komunikazio ikastaroak emateko.

### **Zerbitzuaren bestelako baldintzak**

- Enpresa esleipendunak urtean zehar zerbitzuaren balorazioak eta ebaluazioak DONOSTIA KULTURARI aurkeztu beharko dizkio, bai bere borondatez, bai DONOSTIA KULTURAK eskatuta.

Irrati eta komunikazio ikastaroen programak diseinatzeari eta horiek emateari dagokionez –aurreko 1. klausulako c) letran deskribatzen da–, lehenengo ebaluazio bat, urtero, urtarrilaren 15erako egin beharko da nahitaez, eta lehen hiruhilekoan egindako ikastaroen emaitza ebaluatuko da ebaluazio horretan (ikasleen onarpena eta gogobetetzea, ikastaro bakoitzaren garapena eta enpresa esleipendunak egokitzen dituen alderdiak, edo DONOSTIA KULTURAK eskatzen dituenak); bai eta bigarren ebaluazio bat ere, ikastaroak amaitzean. Horretan, ikastaro bakoitzaren eta, oro har, diseinuaren balorazio eta ebaluazio sakona egingo da.

- DONOSTIA KULTURAK beretzat gordetzen du, zerbitzu hori esleitu ondoren, ikastaroen diseinuan eta programetan aldaketak sartzeko eskubidea.

### **3. ZERBITZUAK EGINGO DITUZTEN LANGILEEI BURUZ**

**3.1. Agiri honen 1. klausulako a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuekin lotuta –hots: a) Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea; eta b) emanaldi zerrendetarako laguntza teknikoa ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta–, enpresa lizitatzailleek, euren proposamen teknikoan, zerbitzu horiek egitera zuzenduko duten lan taldearen deskribapena barne hartu beharko dute. Zerbitzuari atxikitako lagun bakoitzaren izen-abizenak, NANA, curriculum vitae, titulazioak eta prestakuntza adieraziko dira, bai eta agiri honen 1. klausulako a) eta b) ataletan aipatzen direnen antzeko ezaugarriak izango dituzten egindako beste edozein zerbitzu eta berariazko ezagutza ere.**

**3.2. Agiri honen 1. klausulako c) atalean jasotako zerbitzuekin lotuta –hots: irrati eta komunikazio ikastaroen programak diseinatzea, eta horiek ematea–, ikastaroak diseinatzeko urteroko proposamenean, esleipendunak ikastaro bakoitza ematera zuzenduko duen lan taldearen deskribapena barne hartu beharko du. Atxikitze hori, era berean, DONOSTIA KULTURAK baimendu beharko du; hala badagokio, bidezko aldaketak sartuta.**

Horretarako, ondoko datuok adieraziko dira: curriculum vitae, titulazioak, hizkuntzen ezagutza (berezi adierazita lan taldeko kideek kontratuaren xede diren prestazioak

euskaraz eta gaztelaniaz era berean gauzatzeko duten ahalmena), prestakuntza, eta kontratuaren xede diren antzeko ezaugarriak izango dituzten egindako beste edozein zerbitzu eta berariazko ezagutza ere. Era berean, berariaz adierazi beharko da enpresaren arduraduna edo ordezkaria zein den.

DONOSTIA KULTURAK beretzat gordetzen du bidezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edota beharrezkotzat hartzen dituen dokumentu gehigarriak eskatzeko eskubidea. Horren helburua da legeak betetzen direla ziurtatzea, erakunde kontratista ikastaro bakoitza emateko atxikitako erakundeekin eta/edo pertsonekin lotzen dituen kontratazioei dagokienez.

Proposamenean, irakasleen euskara mailaren ziurtagiriak jaso beharko dira; bai hizkuntza horretan ematen diren ikastaroetarako, bai euskaraz jakitea nahitaezkoa ez den ikastaroetarako. Ikastaroa euskaraz emango balitz, EGA mailako ezagutza, horren baliokidea edo maila handiagoa izatea egiaztatu beharko da.

Euskararen ezagutza maila hori egiaztatu ezinez gero, DONOSTIA KULTURAK aukera izango du maila hori zehazteko proba bat edo gehiago egiteko. Irakasleak adierazitako probetan maila hori egiaztatuko ez balu, esleipendunak ikastaroa emateko beste pertsona bat aurkeztu beharko du, hura ordezkatzeko.

Gaztelaniaz eta euskaraz bestelako hizkuntza batean (ingelesa, zeinu hizkuntza...) ematen diren ikastaroak dagokienez, era berean, B2 ezagutza maila, horren baliokidea edo maila handiagoa egiaztatu beharko da. Era berean, adierazitako B2 ezagutza maila, horren baliokidea edo maila handiagoa egiaztatu ezinez gero, DONOSTIA KULTURAK aukera izango du maila hori zehazteko proba bat edo gehiago egiteko. Irakasleak adierazitako probetan maila hori egiaztatuko ez balu, esleipendunak ikastaroa emateko beste pertsona bat aurkeztu beharko du, hura ordezkatzeko.

Esleipendunak landu beharreko dokumentu batean, ikastaroak emango dituzten lagunen jardun protokoloa jasoko da, bai esleipendunarekiko berarekiko, bai eta Casares-Tomasene kultur etxearekiko ere. Dokumentu hori DONOSTIA KULTURAK onartu beharko du. Horrez gain, langileen jarraitutasun plan bat aurkeztu beharko du, baja, oporraldi eta abarretarako.

DONOSTIA KULTURAK beretzat gordetzen du beharrezko zuzentasunaz, gaitasun teknikoaz eta eraginkortasunaz jarduten ez dutenak edota euren eginkizunen jardunean arretaz jokatzeko ez dutenak kanpora daitezeko aukera; klausula ekonomiko administratiboen agiriko 21. klausulan ezarritakoaren arabera.

Donostian, 2013ko abuztuaren 5ean.

  
San Sebastián, ciudad de la cultura  
EEP, ERE  
Amaia Almirall López de Luzuriaga  
Zuzendari kudeatzailea

